

**Bai Euskarari** Plan estrategikoa

**JOXE JABIER IÑIGO**

■ ■ ■ «Gizartearen harrera onak lanean segitzeko gogoia piztu digu. Hasierako prestutasunari eutsi ez ezik, areagotzen ere joan da»

Kontseiluak abiatutako estrategia nagusia.

**Behin-betiko Plana martxoan**

Ostean, akordioa gizarte osoa zabaltzeko erronkari ekin zioten, eta horren emaitza aurtengo maiatzaren sinadura ekitaldia egin zen. Orduko ekitaldian 700 sinatzailek hartu zuten Bai Euskarari akordioa gauzatzeko konpromisoa. Harez geroztik, kide bakoitzak iradokizunak egiteko aukera izan zuen, eta hala hasi zen plan estrategikoa diseinatzeko etapa.

Gizartea 23 sektoretan banatu zuten eta arlo bakoitzak zituen akatsak, hutsuneak, beharrak eta horietarako konponbideak bilatzen hasi ziren. Ondoren, ildo estrategikoa ezarri eta konpromisoak proposatzeko garaia izan dira azken etapa-ko eginbeharrak.

Datorren urtetik aurrera planaren behin betiko erredakzioa, martxoa arteko epea izango duena, eta hartutako konpromisoak gauzatzeko baina ez da geratzen. Dena den, Kontseiluko Batzordeko gehienek uste dute fasea hau dela Akordioaren xedek lortzeko funtsezkoena.



XOUSE SIMAL

Torrealdai, Arrizabalaga, Irazabalbeitia eta Uria Kontseiluko zuzendaritzako kideak, atzoko ospakizunean.

**«Euskal gizarteak hil ala biziko dituen elkarguneak lortu ditu Akordioak»**

*Mendigurenak Bai Euskarari Akordioa baloratu zuen atzo*

Kristina Martin / Bilbo

«EUSKAL gizarteak hil ala bizikoak du adostasun guneak topatzea, eta hori da Bai Euskarari Akordioak egin duen ekarpenik garrantzikoena: aniztasun eta desberdintasun handiko errealitateak biltzen ditugu eta horien gaineko apostua eginez eguneroko jardunean altxor txiki handi hau elikatzen ari gara», esan zuen Xabier Mendigurenak, Kontseiluko idazkari nagusiak, atzoko agerraldian.

«Urtebete eta gero egoerarean eta indartsu dakusagu Bai Euskarari Akordioa. Dena den, Kontseiluaren izenean deia egin nahi diet gure hizkuntzaren garapenaz ardura duten gizarteko esparru guztiei, politiko nahiz sozial, babes dezaten gogo biziz hainbeste nekeen ondoren lortu dugun batasuna», gaineratu zuen.

Bestalde, EAEko hiru lurraldeetan euskara ofiziala bada ere, Nafarroako zonalde batzuetan eta Iparraldeko hiru lurraldeetan hizkuntzaren ofizialtasuna

lortzea Kontseiluko erronka nagusia dela gogorazi zuen Mendigurenak. «Euskarak ofiziala behar du izan Euskal Herriko lurralde osoan, hika-mika antzuetatik at egotea, baina horretarako gure lanaren beharra du, herritarrona, baina bereziki erakunde publikoetako», nabarmendu zuen.

Amaitzeko, duela urtebete Akordioaren sorreran izan ziren 22 sustatzaileei eskerrak eman zizkien, «haren emaitza orain ikusten ari garelako».

**Diseinuari ekarpenak egiteko aukera**

■ PLAN Estrategikoaren diseinua amaitutzat eman duten arren, diseinuaren behin betiko bertsioa jaso arte oraindik badago ekarpenak eta aldaketak egiteko aukera. Hala, Kontseiluak webgunea dauka, eta nahi duenak Plan Estrategikoaren ildoak ikusi eta posta elektronikoaren bidez horri buruzko iritziak plazaratu ditzake. Helbidea honako hau da: (www.baieuskarariakordioa.org). Urtarrila osoa izango du, beraz, Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartu nahi duenak. Hila amaituta, ostera, idatzia osatzeari ekingo diote, eta martxoan izango dute behin betiko idatzia.

Horretaz gain, Kontseiluko webguneak planaren zehaztasun guztien berri eskaintzen du. Izan ere, gizartearen 23 sektoretan egindako azterketa eta emaitzak ikus daitezke bertan. Kirol arloak, hedabideak, finantza munduak, publizitateak, merkataritzak eta abarrek zein ahulezia eta hutsune dituzten euskararen normaltasuna lortzeko, zein arlo indartu behar diren, zein aukera dauden helburuak lortzeko eta azterketa horren guztiaren ondorioak. Txostenak ere agertzen dira Interneten.

Bestalde, Kontseiluko kideak, Jarraipen Batzordekoak, sustatzaileak eta laguntzaileei buruzko datuak eskuragarri daude webgunean.

**Jesus Madariaga** •

BATZ kooperatiba



**«Beste enpresek gure bidea segitzea nahiko genuke»**

►«Elhuyarrekin batera euskararen plangintza jarri dugu abian aurren. Gure enpresako langile gehienak euskaldunak dira, baina arlo askotan ez da erabiltzen. Batzartean edota seinalizazioan euskararen erabiltzea dugu erronka. Kooperatibako akatsak aztertuko ditugu, eta horren arabera konponbideak proposatuko ditugu. Bestalde, beste enpresek gure ekimena segitzea nahiko genuke».

**Joserra Bilbao** •

BBK



**«Gizartearen balore inportante bati laguntzen diogu»**

►«Finantza alorrekoak bagara ere, BBKn beti izan dugu arlo sozialean zeregin handia. Ondorioz betidanik ikusi dugu gizartearen euskara dela oso balore inportantea, eta horri lagundu egin behar zaiola. Aspalditik euskararekiko diskriminazio positiboa egin dugu, eta hori egiten segituko dugu. Beraz, euskararen munduan sartu nahi duten enpresei gure esperientzia eskaini nahiko genieke».

**Jesus Alfaro** •

Instituto onkologikoa



**«Osasun arloan hutsune handiak daude»**

►«Osasun arloan euskarari dagokionez hutsune nabarmenak daude. Gure zentruan ez da hain txarra, baina herritar asko normalean euskaraz bizi egiten dela kontuan hartuta, kontsultak ere euskaraz egitea dugu erronketako bat. Momentuz akordioaren ondorio nabarmenik ez dago, baina itxaropena eta lan egiteko gogoia sortu du. Orain konpromisoak hartzeko garaia iritsiko da, eta horiek betetzeko dago gakoak».

**Xabier Erdozia** •

MCCko ordezkaria



**«Euskararekiko sentsibilizazioa areagotu du»**

►«MCC taldearen barruko 30 bat kooperatibak dute lehendik hasitako euskararen garapenerako plangintza. Bai Euskarari akordioak, baina, lehendik zegoen plana indartu, ilusioa piztu eta euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko balio izan du. Behar bada epe laburrean ez du akordioak ageriko ondorioirik izango, etorkizunean baizik. Egia esan, gu gizarteak eskatzen duenari erantzuten saiatzen ari gara».